



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2010-06-03**

VIII. URTEA 2.017. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Internet bidez Areso herritarren eta kanpotarren etxe barnean sartu da

**WEBGUNEA** Besteak beste herriko udal zerbitzuak, historia eta ibilbideak aurki daitezke 'www.areso.info'-n

**HERRITARRAK** Webgune berriak Udalarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du 4



Euskal Herria plazan belardi batek autoa irentsi du Tolosa Berdez ekimenaren baitan. A. IMAZ

## ARTISAUTZA AZOKA ETA TOLOSA BERDEZ IRUDIMENA LANTZEN

**TOLOSA** Artisauek bihar jarriko dituzte euren postuak Triangulo plazan; hilaren 6an amaituko dira bi ekimenak 3



Kukuaren jaitsiera ospatzeko haurrek danborra jo zuten. ENERITZ MAIZ

## Txupinazoak eta Kukuak Jaiei jarraipena eman die

**ANOETA** Loatzo Musika Eskolako Bandak lehen kontzertua eskainiko du gaur 19:00etan 5

**TITULAZIO OFIZIALAK**

**ceinpro**

ERDI ETA GOI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOAK  
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 945 310 873

Nazioarteko Lehiaketak  
Praktikak atzerrian



600 lagun baino gehiagok dastatu dute bisigua Zerkausion asteburuan egin duten Bisiguaren Festan. HITZA

## Txinparta elkarteak «oso pozik» aurtengo Bisiguaren Festak eman duenarekin

**Gastronomia** » Hiru otorduetan 600 lagun baino gehiago izan dira; gainerako ekimenak ere «arrakastatsuak» izan dira.

### ERREDAKZIOA

Ekitaldiz beteriko asteburua izan da igaro berri dena, eta guztietan nagusitu dena Bisiguaren Festa izan da. Txinparta elkarteak antolatutako ekimena bigarren egin dute aurten, eta izan duen «harre-ona» ikusita, hirugarrena ere izango da datorren urtean.

Antolatzaileak «oso gustura»

daude izan duen «parte-hartze handiarekin». Orotara, hiru otordu izan ditu ekimenak, eta 600 lagun baino gehiago izan dira Orio estilora egunik menu berezia dastatzen. Txinparta elkarteak Angel Alonso eta Luis Angel Ortek esan dutenaren arabera, «aurten txartel salmenta motelagoa izan da, iaz baino lehenago jarri zirelako salgai, baina azkenean esperotako kopurura ailegatzea lortu dugu». Halaber, larunbatean bazkaria goiko solairuan zerbitzatu zuten, eta erabaki hori «oso egokia» izan zela esan dute. «Jendea oso gustura egin baitzen bertan, eguzkia eta ikuspegi ez gozatzen».

Bestalde, Bisiguaren Festarekin batera antolatutako gainerako ekimenek ere «harrera ona» izan dute. Triangulon izan zen Galiziar Festan egunero jende ugari izan zen, eta olagarroa, muskuiluak eta galiziar ardoak zerbitzatzeaz arduratu den Pulpalia enpresako ki-deak «oso pozik» geratu dira esperientziarekin.

Ostalariek ere bat egin zuten ekimen horrekin. Hala, ostiralean 19-90 edaritegian egin zuten ardo zurien dastatzea «arrakastatsua» izan zen, eta erantzun berdina izan zuen Ezpeleta elkarteak tabernetan olagarroarekin egindako pin-txoak jartzearan ideiak.

## Laburrak

### Udapasa artistikoetan izena emateko aukera

**HEZKUNTZA** » Artekin elkarteak antolatuta udapasa artistikoak egingo dituzte Musika Eskolan uztailaren 5etik 16ra bitarte. 4 urtetik 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako ekimen honekin gazteak ederki igarotzearekin batera artera hurbildu nahi dituzte, musika edota dantzaren bidez. Ekainaren 10era arte, 10:00etatik 13:00etara, Musika Eskolan izango da bertan izena emateko aukera.

### Korputz Kristi eguneko meza igande honetan

**ERLUJIOA** » Korputz Kristi Eguna izango da igandean, eta Meza Nagusia 12:00etan izango da Santa Maria parrokian. Elizkizun hori elbitan izango da. Ondoren, prozesioa egingo dute Alde Zaharreko kaleetan zehar. Lehen jaunartzea aurten egin dutenak ere gonbita dituzte ospakizunera.

### Oargik mendi irteera egingo du Gourettera

**MENDIA** » Oargi Mendi elkarteak irteera antolatu du datorren astebururako, hilaren 11tik 13ra. Gouretteko haranera joango dira, eta han Grand Gabizos eta Pic de Ger mendiak igoko dituzte. Hilaren 11n abiatuko dira Tolosatik Gourette herrira, eta bertan mendiko aterpean igaroko dituzte bi gau, ostiralekoa eta larunbatekoa. Larunbatean, hilaren 12an Grand Gabizos (2.692 m.) mendira joango dira. 9 ordu inguruko iraupena izango du, eta Aubisque mendiko portutik aterata egingo dute. Hurrengo egunean, berriz, Pic de Ger (2.613 m.) mendira joango dira. 7 orduko buelta izango da, eta Gouretteko eski estazioetik abiatuta egingo dute. Hori egin ostean, etxerako bidea hartuko dute. Irteera honetan parte hartzeko 688 69 86 42 zenbakira deitu beharko da, edo bestela [oargi@euskalnet.net](mailto:oargi@euskalnet.net) helbidera idatzi.

## Organo emaile izateaz informazioa banatuko du etzi, Alcer elkarteak

**Gizartea** » San Frantzisko elizaren ondoan jarriko dute mahaia; informazioa banatuko dute herritarrek sentsibilizatzeke.


### ERREDAKZIOA

Organo Emailearen Eguna izan zen atzokoa, horren harira, Alcer Gipuzkoak (Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen Elkarteak) sentsibilizazio astea antolatu du Gipuzkoan hainbat herritan. Eskualdean, Tolosan egingo dute kanpaina, etzi, 10:00etatik 13:00etara; San Frantzisko elizaren ondoan jarriko dute mahaia eta herritarrei informazioa emango diete egungo egoeraz eta dagoen beharraz.

Alcer elkarteak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoan organo emaile errealean edo hildakoan

emaitzen batez bestekoa 38-40 da milioi bat biztanleko. Kopuru hori azken hamar urteetan mantendu egin da. Alor honetan lehenetarikoa izan dela gogoratu du Alcer-ek, garen ere, ematen dituzten datuen arabera, Espainian 34,2 milioi dira milioi bat biztanleko, Portugal egongo litzateke ondoren 26,7rekin, Estatu Batuak gero 26,3rekin, Belgika 25,7rekin eta Frantzia atzetik 25,3rekin.

Une honetan, 2.500 gaixo inguru bizi dira organo transplantearekin EAEn, eta elkartearen ustetan, «sentsibilitate eta elkartasun handiaren adierazle» da hori. Dena den, beharra handia dela diote, «gaixo ugari baitago zain, eta hildakoen familiek emaile izateari ezeztasateko arriskua baitago». Horregatik banatuko dute informazioa etzi, «herritarrek sentsibilizatzeke helburuz».



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Berdura plazan uharte moduko bat aurkitzen da; Triangulo plazan «lore eta berdetasunez beteriko lorategia» eta plaza Berrian banuzko basotxoak. A. IMAZ

# Irudimena lorategietan eta eskuetan

**Tolosa** » Bihar hasiko den Artisautza Azoka hilaren 6an amaituko da, Tolosa Berdez ekimena amaituko den egun berean.

## ASIER IMAZ

Alde Zaharrean barrena ibilbide berri bat sortu dute, Tolosa Berdez ekimena. Bihartik aurrera gainera, Artisautza Azokak ibilbidearekin bat egingo du bere guneetako batean, Triangulo plazan.

## Jarraitu bide berdeari

Hasiera beraz, Triangulon eman-go diogu ibilbide berdeari. Bertan dagoen Gaztelako atean, lore eta berdetasunez beteriko lorategia aurkitzen da zintzilik. Kaiz lorategiko Joserra Caminos-ek apaindu du Atea.

Aurrera jarraituz, Zerkausia atzean utzi eta Plaza Zaharrera joango gara. Bertan, «lorategi sekre-

tu bat» aurkitzen da. Sartzea erraza da, bi sarrera baititu; irtetea ordea... «Gizakion bizitzan aurkitu ditzakegun bizitzeko bi modu» islatzen dituen lorategia Berdez Berde enpresako Haritz Elosegik hornitu du.

Kanpora irtetea lortzen duenak, agian uharte galdu baten beharra sentituko du, lasai atsedean hartzeko. Horretarako bide berdeari jarraitzea nahikoa izango da. Berdura plazan palmondo baten itzalpean, oinak hondarretan dituzula imajinatzeak aukera dago. Gune hau Azpiazu mintegia etxeak prestatu du.

Ibilbideari jarraituz, uhartetik oihanera joango gara. Belar on-

duen gaineko banuzko zuhaixken artetik begiraruta, batek daki zer topatuko duen plaza Berrian. Goroldi enpresak sortu du laugarren guneko basotxoak.

Abenturak amaiera Euskal Herria plazan dauka. «Hausnarketarako» gune honetan, zelai berde batek auto bat nola irensten duen ikus daiteke. Hilaren 6a baino beranduago doanak, ez du naturaren eboluzio berezi hau ikusteko aukerarik izango. Euskal Herria plazako artelana Urretabizkaia mintegiak eta Pablo Alberdik burutu dute.

Herriko bost gune horiek bezala, Tolosa & Co merkatarien elkarteko kideek, dendak dauden kaleak eta erakusleihoak loreekin era berezian apaindu dituzte.

## Eskulanen azoka

Bihar hasi eta hiru egun iraungo dituen Artisautza Azokaren ingurua, Triangulon 20 artisau postu jarriko dituztela aipatu behar da. Horietatik 3 tolosarrak izango dira: Tartalo, diseinu eta serigrafia; Zuentzart, birziklapen eskultura eta Arantza Munieta, keramika. Aresotik Trock larrugintzako ki-

dea etorriko da eta Bidegoiandik Kiara beirakoa.

Artisautzaren baitan baina elikadura arloan, ondorengo jakiak jarriko dituzte salgai Triangulo plazan: Erronkariko eta Idiazabal gazta, pastak, txerrikoa eta ahatearen eratorriak.

Argia Badago tailerreko langileek beira puztua nola egiten den erakatsiko dute zuzeneko tailer baten bidez. Beirazko irudi ikusgarriak nola lantzen diren ikusteko aukera egongo da beraz bihartik aurrera Tolosako Artisautza Azokan.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.  
Postu finkoak erakunde publikoetan.  
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.  
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako.  
Postu finkoak.  
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Herriko webguneak Udalaren zerbitzuak, historia, kultura, ohiturak, argazkiak eta herriko bazterrak erakusten ditu. Aresoar, nahiz kanpotik herrira datozenentzat, informazio baliagarria biltzen du.

#### AGURTZANE BELAUNZARAN

**S**arean sartu berria da Areso, webgune berriarekin. [www.areso.info](http://www.areso.info) orrialdeak herriko sekretuak kontatzen ditu: Udalaren antolaketa, nolairitsi, geografía, historia, zer ikusi, zerbitzuak eta argazkiak besteak beste.

Udalak pasa den urtean eman zuen lehenengo pausua, herrian wifi sistema jartzean. Bigarrena berriz, webgunea berritzea izan da. Aresoar guztiak dute beraz, beren etxetik herriari buruzko informazioa jasotzeko aukera, eta bide batez Udalarekin harremanetan jartzekoa.

Herritik kanpo bizi direnek ere, informazio zabala dute; herrian zer ikusi, non jan, non lo egin eta herriaren inguruetan txangoak egiteko azalpenekin.

#### Herritarren eta Udalaren komunikazioa

Webgunearen atal batzuk herritarrei bakarrik zuzendutakoak daude. *Udala* atalean klikatu ezkerreko, herriko zerbitzuak eta elkarteetako telefonoak daude. Baita, zergak ordaintzeko epeak, Udal aktak edota eskaerak egiteko orriak.

Herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa internet bidez bultzatzeko urratsa dela aipatu du Mikel Baraibar alkateak. «Etorrizuna hortxe dago» gaineratu du. «Udalari zenbait eskaera internet bidez egiteko bidea bultzatu nahi dugu. Errolda agiria adibidez, internet bidez eska daitezke eta Udalak, modu berean itzultzen dio dokumentua, eskaera egin duenari».

Alkatearen esanetan: «Herritarrek, Udaletik gertuago sentitzea dugu helburu eta bestalde, kanpotarrek herria ezagutzea nahi genuke».

#### Historia

Aresoren historiari dagokion atalean, 1192 urtearen aipamena egiten da. Ordukoak baitira Aresori buruzko lehenengo dokumentu idatziak. 1794ko Konbentzio Gerran, Napoleonen tropek, herria erabat suntsitu zutela aipatzen da. Elizan aurkitu ziren dokumentu idatziak baieztatzen dutelarik egoera. Ar-

turo Campion idazle nafarrak ere, *Don Garcia Almorabid* liburuan, Areson kokatzen du bere nobelako protagonistetako bat. Hortik datorrelarik Aresoko bidelapurra, Azeari Sumakilaren, kondaira.

#### Bisitariantzat

Areso etxetik ezagutu nahi duenak ere informazio zabala eskaintzen du web orriak. Bertan irakurriak gustatuz gero «kanpotarrak herriara hurbiltzea» dela helburua azaldu Mikel Baraibarrek.

Monumentu zibil eta erlijioso interesgarriak aipatzen dira. Tartean, Indianoen etxeak: Ameriketatik herrira itzuli eta estilo kolonialean egindako etxeena. Garbitegi oktogonala bitxia ere aipatzen du.

Monumentu erlijiosoetan, Jasokundeko Ama Birjinaren eliza bisitatzeko gomendioa egiten du. Santa Kruz basilikak ere aipatzen dira, Arinbe parajearen eraikia dagoena bata. Bestea, Ulizarreko kaskoan, Inkisizio garaian eraiki eta 1800 urte inguruan elurteek suntsitu zutena. Oraindik ere arrastoak hantxe daude.

#### Sorginen ibilbidea, Napoleonena eta Zezena

Areso inguruetan txangoak egiteko gonbitea ere egiten du web orriak. Lau ibilbide izendatzen ditu, informazio eta deskribapenekin: Sorginen ibilbidea, Napoleonen Ibilbidea, Probitintzetako Abeldiadeak eta Plazaola.

*Sorginen Ibilbidea*: Nafarroako Gobernuak lau ibilaldi turistikoki izendatu zituen, sorginkeria puntualak lotuz. Aresokoak *Mendiak*, *kobazuloak*, *mitologia* eta *sorginkeria* izena du. Ulizarko kaskotik igarotzen da ibilbidea. Ustez, mendia hau atsegin zuten sorginek akelarreak egiteko. Inkisizio garaian, XVI. eta XVII. mendeetan, baseliazak eraiki ziren sorginkeria lekuean, inguru purifikatzeko. Inguru hauetan daude garai hartan eraikitako Santa Kruz basilizaren arrastoak.

*Napoleonen ibilbidea*: Areso eta Gorriti lotzen dituen bide zahar-

# Aresok badu bere tokia interneten



Aresoko informazioa biltzen duen webguneak, inguruan egiteko txango ugari gomendatzen ditu. JAIONE ASTIBIA

## ARESOKO BIDELAPURRAREN KONDAIRA

rrak hartzen du izen hau. Konbentzio Gerran, soldaduek Areso erre eta gero, Astomela erre karean ondotik Gorritira joateko hartu zuten bidea, hain zuzen ere.

*Zezenen bidea edo Probitintzetako abelbidea* (GR 9): Iruñerriari hasi eta Gipuzkoan bukatzen da. Ibilbide historikoa da, Bardeetatik Azpeitira bide honetatik eramaten baitzituzten garai batean zezenak. 4-5 egunetan egiten da ibilbidea, eta paisaia aldaketa nabarmenak eskaintzen ditu, Iruñerriko landa lehorretik, Kantauriar isurialdeko klimari dagokion paisaia berderaino.

*Plazaolako bidea*: Bide berde ezaguna ere, ibilbideen barruan sartu dute. Iruñea eta Donostia lotzen dituen trenak egiten zuten bidea, oinez edo bizikletaz egitea gomendatuz.

Aresoan omen zen dorretxe txiki bat eta bertan bizi izan omen zen Azeari Sumakila, Aresoko bidelapurra. Benetako izena On Pedro Martinez de Oyanederra zuen eta Jauntxo noblea izan zen. Haren emazteak, Elvirak, azken hatsa ematekotan zela, On Pedrori deitu zion sekretu bat aitortu asmoz: zituzten hiru seme-alabetatik bat ez zen On Pedrorena, ezkontzat kanpoko harreman baten fruitu baizik. Jauntxoak, amorraturik hiruen bila joan eta emaztearen ohe ondora ekarri zituen, eta zein ez zen berea galdetu. Emazteak txintik ere ez zuenez esaten, hantxe lotu eta su eman zien denei. Burua galduta ihes egin zuen, norabide jakinik gabe, bere zaldia akiturik geratu zen arte. On Garzia Almorabiden aurra preso eraman zutenean, heriotza zigorra jarri zioten. On Garzia, ordea, haurtzaroko lagun mina zuen. Honek, zigorra betetzearan plantak egin eta ihes egiten utzi zion, betirako basailutza zin egitera behartu ondoren. Horrela desagertu zen On Pedro, eta Azeari Sumakila agertu. Gaizkile talde batekin, Aresoko dorrean jarri zen. 1276an gerrarako laguntza eskatu zion On Garziak, Azeari Sumakilari. Bidelapurak ordurako, bazekien, bere emazte, Elvira eta On Garzia Almorabiden maitasun historiaren berri. Azeari, mendeku asmoekin hurbildu zen On Garziarenegana. Andia-ko mendilerroan erori zen Sumakila gaizkilearen eskuetan eta berehala ulertu zuen azken ordua iritsi zitzaioela. Harrikatuta hil zuten: adulteriogileentzako zigorrarekin, alegia.

**Festak ondo pasa!**

**ERGOIEN, 5**  
**TEL. 943 654 613**

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza**  
bertako egunkaria

**egin zaituzte harpidedun!**

**902-82 02 01**  
(Asteegunetan 09:30-20:30 / Lanbatuetan: 09:00-13:00)

**www.tolosaldekohitza.info**

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba eta bidaiak: 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N.A.: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia:

Aberriaren 13ko 154/1990 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko, betetarik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA eta HERRI IKASTOLA S.M.-ren fitxategi automatizatu bitartez pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago inbultu, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak. TOLOSALDEKO HITZA eta HERRI IKASTOLA S.M.-ren Araba eta bidaiak 20400 Tolosa, edo harpidetza gaitza zard.

# Jaitsi da azkenean Kukua

**Anoeta** » Herriko Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du bihar 22:30ean Kiroldegian, Loatzoren laguntzarekin.

## ERREDAKZIOA

Atzo bota zuten Korputz jaien hasierako txupinazoa Kukuaeren jai-sieraren ondotik. Jaiak, hala ere, pasa den larunbatean hasi zituzten Koadrilen Egunarekin. Atzo egun osoan zehar izan zuten jai giroa herrian eta festak gaur ere izango du jarraipena, Umeen eta Mozorro Eguna baita.

## Helduen Dantza Taldea

Bihar Anoetako Helduen Dantza Taldekoen emanaldia ere izango da 22:30ean Kiroldegian Loatzoko musikariez lagundurik.

Emanaldi berezia izango da, izan ere, «urratsez urrats talde oso bat izatera» ere iritsi dira eta azken bi urteetan ikasi eta prestatutakoa erakutsiko diete anoetarrei. Iaz ere jaien baitan koreografia bat eskaini zuten helduen Dantza Taldeak, eta aurtengoaan hura oinarri hartuta osatu dute emanaldia.

Ikuskizuna, helduen taldea oinarri hartuta, hamalau dantzaz osatuta egongo da, ordu eta erdiko emanaldia eskainiz.

Helduen taldeaz gain, hala ere, gaztetxoek ere beste bi pieza eskainiko dituzte, baita dantza irakasleek eta Ibarrako Alurr Dantza Taldekoek ere.

## Partaideak

Anoetako Dantza Taldean 3 urteko haurretatik hasi eta berrogei urte inguruko 76 dantzari daude. Harro daude herrian, izan ere, «urteetan herriko gaztetxoekin landutako bide emankorrak helduen Dantza Taldea osatzera ekarri baitu sari gisa», argitu dute taldeko kideek. «Duela bi urte ikastarogisa antolatua, talde izaera hartu eta ikuskizun bat egiteko moduan da dagoeneko helduen taldea», bihar bertan eskainiko dutena, hain justu.

Gaur egungo taldearen izaera, hala ere, «aurrekoei» zor dietela diote: «1950. hamarkadan Manuel Odrizola dantza-soka eta ezpata dantza erakusten hasi zen garaieratik hona, mende erdia da jada. Orduan, 14-17 urte bitarteko gaztetxoak (20 partaide eta 2 talde) hasi ziren, eta horretan ibili zen Manuel, 18 bat urte edo, 1970. urtera arte. 1960. hamarkadan Joxe Leon ere hasi zen 6-8 urte bitarteko hamasei umeri (8 neska eta 8 mutil) dantza sultoa irakasten: fandan goa eta arin-arina. 1970. urtean etanaldi bat egon zen, 1977. urtera arte. Orduan Eskola Publikoetako andereño zen Tere Mozo hasi zen berriro gaia suspertzen, eta berak kontaktatu zuen Arkaitz Tolosako Dantza taldearekin (egun desagertua). Hemengo irakasle batzuk aritu ziren klaseak ematen 8 bat urte 50 urte inguruko talde bati (20 mutil eta 30 neska gutxi gora behera). Haiak utzi zutenean, Mertzxe Allue anoetarra hasi zen klaseak



Xake taldeko kideek pregoia irakurtzeaz gain txupinazoa ere bota zuten. E. MAIZ

## » ANOETAKO KORPUTS JAIK 2010

### Ekainak 3, gaur

#### Korputz Eguna: Umeen eta Mozorro Eguna

- 10:30etik 13:30etara. Ume eta gaztetxoentzako parkea plazan.
- 13:45ean. Ume eta gaztetxoek bazkaria frontoian.
- 16:00etan. Kidam magoa.
- 17:15ean. Buruhandi eta erraldoen kalejira herriko trikitilariekin.
- 18:00etan. Txokolate jatea Alkartasuna elkarteak.
- 18:15ean. Txokolate jatea plazan, Ateaga Elkarteak antolatutak.
- 19:00etan. Loatzo Musika Eskolako Bandaren lehen kontzertua plazan.
- 21:00etan. Kostila jatea frontoian, Anoetako Ezker Abertzaleak antolatutak.
- 23:00etan. Erromeria plazan, Triki Hots taldearekin.

### Ekainak 4, bihar

- 10:00etan. XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak.
- 11:00etan. Herriko Jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan.
- 16:30ean. Buruhandi eta erraldoen kalejira txistulariekin.
- 18:00etan. Ume eta helduen Play-Back-a plazan.
- 22:30ean. Anoetako dantza taldearen ikuskizuna Kiroldegian.
- 00:00etan. Kontzertua plazan: Ze esatek eta Bizardunak taldeak.

### Ekainak 5, etzi

#### Gazteen eguna

- 11:00etan. Herri Lasterketa.
- 12:30ean. Buruhandi eta erraldoen kalejira txistulariekin.
- 15:30ean. Mus Txapelketa.
- 16:30ean. Txirindulari Lasterketa.

ematen, eta ondoren Miren Beraza eta Izaskun Goikoetxea. Ondoren, Anoetako Naiara Yurrita aritu zen klaseak ematen, eta ondoren Amezetako bi irakasle, gero Villabonako Oinkari taldeko irakasle batzuk, Oinkari Txikikoak ere bai ondoren, eta duela 4 urte gaur egun arte Alurreko irakasleak (Anoeta bertako Amañur, Ane, Lide eta Iñaki)».

Horiek horrela, Anoetako Dantza Taldean 4 eta 5 urteko 18 dantzari daude, 6 eta 9 urte bitarteko beste 18, 10 eta 13 urte arteko 17 dantzari eta helduen taldean 23 kide daude. Taldeko zuzendaritza bederatzikide osatzen dute eta Itziar Lazkano da koordinatzailea, aipatu behar da, dena den, biltegi eta jostun taldeak ere badirela. Finantzaketari dagokionez, dantzarien kuotez gain Anoetako Udalak eta herriko talogileek diru-laguntza ematen diete.

### ■ 17:30ean. Judoa Kiroldegian.

- 18:00etan. Gazteen kalejira.
- 19:00etan. Sagardo dastatzea.
- 21:00etan. Herri Afaria.
- 23:30ean. Gazteen dantza.
- Ondoren. Laketen erromeria.

### Ekainak 6, igandea

- 11:00etan. Gorritiren festibala.
- 11:00etan. Paleta Txapelketako Finalak frontoian.
- 12:00etan. Buruhandi eta erraldoen kalejira txistulariekin.
- 17:30ean. Herri Kirolak: Arozetxea ondoko belazean. Alkiza eta Anoetaren arteko apustua.
- Ondoren. Kupela taldearekin erromeria, 20:30ak arte plazan.
- 23:00etan. Kupela taldea.
- 00:00etan. Zezen Suzkoa eta Kukuaeren igoera. Ondoren, Kupe-laren erromeriarren jarraipena.



## Internet bidezko Modalitatea, Partikularrentzat

### PROZEDURA OSO ERRAZA DA:

- 1) Aitorpena gure web-orrian eskura dagoen programa ofizialaren bidez helarazten da.
- 2) Egiaztariak Gipuzkoako edozein zerga bulegotan entrega daitezke, edo postaz bidal daitezke. Pasahitz operatiboa duten partikularrek kasu hauetan bakarrik hurbildu beharko dute gure bulegoetara: beren ohiko etxebizitza aitorpenaren urtean erosi badute edo aitorpenean dagoen zerga informazioan islatu ez den beste kontzepturen bat aitortu badute.
- 3) Zure aitorpenaren emaitzaren arabera, gu arduratuko gara zenbatekoa itzultzeaz edo ordaindu beharrekoa kobratzeaz, zuk adierazitako kontu zenbakian helbideratzearen bidez.
- 4) Gogoratu errenta euskaraz egin dezakezula konfiantza osoz.

### ZERGA INFORMAZIOA:

Zure zerga informazio partikular guztia (diru-sarrerak, gastuak, atxikipenak eta abar) gure web-orrian dago eskura, zuri aitorpena errazteko. Nola eskuratu?

- 1) **Internet bidez:** Pasahitz operatiboarekin berehala eskuratuko duzu. Oraindik ez baduzu pasahitz operatiborik, eska ezazu gure web-orrian. Zerga informazioa laguntza programara inporta dezakezu, eskuz sartzen aritu beharrik izan gabe.
- 2) **Etxean:** Zure zerga informazioa etxera bidaltzeko eska dezakezu. Horretarako eskaera telefono bidez edo gure web-orriaren bidez egin dezakezu (pasahitz operatiborik gabe).
- 3) **Gure bulegoetan:** Donostia (Okendo eta Errotaburu), Azpeitia, Bergara, Eibar, Irun eta Tolosan.

APIRILAREN 20TIK  
EKAINAREN 25ERA

gipuzkoako  
ogasuna

GIPUZKOAKO  
zurekin, aurrera.

OGASUN ETA FINANTZA  
DEPARTAMENTUA  
DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS

www.gipuzkoa.net/ogasuna

902 100 040

ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

Autolikidazio proposamenak onartzea, errenta mekanizaturako hitzordua eta informazioa.



# Igandean omenduko dute Jose Mari Zulaika 'Paskualtxo'

**Zizurkil** » 11:30ean hasiko da herri kirol jaialdia eta doan izango da. Ondoren bazkaria egingo dute trikitilari eta bertsolariekin.

## ENERITZ MAIZ

Igandean, hilak 6, Jose Mari Zulaika *Paskualtxo* omenaldia egingo diote. Atzo aurkeztu zuten egun osorako prestatu duten omenaldiaren egitaraua. Aurkezpenean, Juan Manuel Erasun, Maria Angeles Lazkano eta Patxi Jauregi izan ziren. Hauek, omenaldiaren arrazoiak argitu zituzten eta eguneko izango den egitaraua aipatu zuten.

Kirol saio erraldoia 11:30ean hasiko da Adunibarreko zelaian. Doan izango da herri kirol ikuskitzuna baina gerturatzen direnek, borondatea emateko aukera izango dute. Ondoren, 14:15ean, herri bazkaria egingo dute, trikitilari eta bertsolarien saioekin.

**Jose Mari Zulaika 'Paskualtxo'** Urteetan honelako jai bat egiteko asmoa izan dute herri kirol munduan dabiltzanek. Aurten, lagun talde bat bildu da eta iganderako prestatu dute. Juan Manuel Erasunen hitzetan: «honekin erronka berri bat ireki nahi dugu eta aurrera begira urterot edo, honelako egun garrantzitsu bat antolatzea nahi genuke. Gure aurrekoei eskertuz, honelako jai batean, lagun artean egun eder bat pasatzea da helburua». Aitzakiatzat hau hartuta, lehen omendua Jose Mari Zulaika *Paskualtxo* izango da.

Bere ibilbidea zein den kontuan izan da, ongi merezitako omenaldia jasoko du. 50 urtetik gora herri kirol munduari lotuta lanean aritu da. Hainbat apustu eginikoa eta beste hainbat kirolari gazteren maisu eta laguntzailea izan da. *Paskualtxok* berak hartu zuen hainbat herri kirolariri erakusteko ardura. Bere ikasle izan dira, besteak beste, Erasun segalaria edota Perurena herri jasotzailea. Zulaika, jaiotzez zarautzarra izan arren, 18 urterekin Asteasuko Mutteia baserrira joan zen bizitzera, Eleuterio Tapiaren etxera. Gaur egun, Badaion bizi da.



J. Manuel Erasun, M. Angeles Lazkano eta Patxi Jauregi aurkezpenean. E. MAIZ

**Herri kirol jaialdia** Herri kirol saioan, herri jasotzaileak, aizkolariak, segalariak, trontzalariak eta korrikalariak izango dira. Herri kirol jaialdian, izen handiko kirolariak eta kirol modalitate ezberdinak bildu nahi izan dituzte.

Saioa, azkarra eta dinamikoa izango da, hasi eta bukatu bata bestea jarraian egingo dute. 90 minutuko iraupena izango du.

Antolatzaileen esanetan, kirolari beterranoak, gaur egungoak eta etorkizunekoak batu nahi izan dituzte. «*Paskualtxo* berak, oso ondo jakin du garai berrietara egokitzun» azpimarratu dute.

Kirol saioaren ostean, jaiak Zizurkilgo Intxaur frontoian jarraituko du. Bazkari herrikoia egingo

## » 'PASKUALTXO'RI OMENALDIA

### Ekainak 6, igandea

- **11:30ean.** 90 minutuko saioa izango da. Dinamikoa eta azkarra.
- **Herri jasotzaileak.** Saralegi eta Goenatxo, Inaxio Perurena, Iñaki Perurena, Aimar Irigoien, Izeta II.a, Gibitegi, Zelai eta Landarbidie.
- **Aizkolariak.** Nazabal eta Lopez, Arrospide eta Olsagaztiren aurka. Otaegi eta Mugerza II.a, Olano eta Saralegiaren aurka. Arria aita-semeak, Larretxea aita-semeen aurka.
- **Segalariak.** Arrate Garin eta Irati Astondoa emakumeetan. Lizaso eta Urki, Mendizabal eta Erasunen aurka gizonezkoetan.
- **Trontzalariak.** Bi bikote mixto.
- **Korrikalariak.** Garin anaiak, Agirresarobe, Artola eta Iruntxiberri.
- **14:15ean.** Bazkaria egingo dute Intxaur Frontoian.
- **Ondoren.** Trikitilariak eta bertsolariak izango dira.

dute. Bazkal ostean bertsoa eta trikiti doinurik ere ez da faltako. Jesus Mari Irazu eta Jokin Sorozabal izango dira bertsotan eta Laja eta Landakanda, Astiazaran anaiak eta alaba, Tapia eta Leturia trikitiariekin. Jose Mari Zulaikak oparia ere jasoko du.

Patxi Jauregi eta Juan Manuel Erasunek «eskerrak» eman nahi izan dizkie Zizurkilgo Udalarri. Eta guztiak gonbidatuta daude omenaldian parte hartzera.



## Zubimusuko lanak bukatu dituzte

**VILLABONA-ZIZURKIL** » Zizurkil eta Villabona herriak lotzen dituen zubiko lanak bukatu dituzte. Martxoan hasi zituzten lanak eta pasa den astean bukatu zituz-

ten. Oinezkoentzako bidea egokitu dute eta ibilgailuek norabide bakarrean pasatzeko aukera izango dute, Zizurkildik Villabonara hain zuzen. E. MAIZ

## Laburrak

### Hutsunea Betez-ek irteera kulturala antolatu du

**VILLABONA** » Hutsunea Betez-ek irteera kulturala prestatu du. Urederaren jaiotza ikusiko dute eta ondoren, Lizarran bisita gidatua izango dute. Ekainaren 20an izango da eta 09:00etan Olaederra kiroldetgitik abiatuko dira. Itzulera, 20:30ak aldera izango da. Helduak, 20 euro ordaindu beharko dute eta 14 urte bitarteko haurrek, 8 euro. Izena emateko azken eguna hilak 15, asteartea, izango da. Harremanetarako telefonoak, 943 69 05 05 (Begoña) eta 658 243 629 (Engrasi). Bazkaria norberaren kontu izango da.

### Halterofiliako pultsulariak larunbatean Galdakaon

**VILLABONA** » III. Euskadiko Liga Kadete eta Promesak, Basaurin lehia-tu ziren. Kadeteetan, taldekako lehen postua Gipuzkoak eskuratu zuen eta Danenako pultsulariak izan ziren guztiak. Kadeteetan banaka, lehen postuan, Asier Gallego sailkatu zen. Promesen taldekakoan Nafarroak irabazi zuen eta 2. postuan Gipuzkoa sailkatu zen. Larunbat honetan, Galdakaon, Halterofiliako Euskadiko banakako, taldekako eta federazioen arteko txapelketa ospatuko da eta Danenako pultsulariak bertan hartuko dute parte.

ANOETAKO  
"Aiaak"

Anoetako Udala

Ondo pasa korputsetan!!

AHT golditza

EUSKAL PRESOAK

EUSKAL HERRIA



Iaz Arantxa Egimendia Martintxone etxekoa izan zen garaile, bere balkoiko lore ederrenatik. HITZA

## Lorategi eta balkoi ederrenak ez ezik, baratzak ere sarituz

**Berastegi** » Aurten ere lore eta barazkien inguruko Txapelketa antolatuta dute; gaur kontsumo taldeen inguruko bilera dago.

### ERREDAKZIOA

Joan den urteko arrakastaren ostean, Berastegiko Kultura batzordeak bigarren aldiz, Lore Txapelketa antolatzea erabaki du. Baina oraingoan gehigarri batekin, baratzak ederrean ere sarituak izango baitira.

Kultura batzordekoen asmoa da, barazki, landare zein lorez apainduta herriko baratzak, leiho eta lorategi onenak jabeak saritzea. Honela, hiru baratzak ederreantzat, hiru lorategirentzat eta hiru leiho, balkoi edo terrazentzat egongo dira sariak. Atal horietako batean parte hartu nahi dutenek, hilaren 20a bitartean eman dezaketeko izena, 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta edo [sebas@berastegi.com](mailto:sebas@berastegi.com) helbide elektronikora mezu bat bidalita.

Uztailaren erdi aldera batzordekideak eta lorezaintza teknikaria elkartuta dira eta izena eman duten partaideen etxeetatik igaroko dira. Baratzak kasuan, bi aldiz egingo dituzte ebaluaketak, biak ere, uztaile eta abuztu erdialdera. Kasu honetan gainera, epai-mahaikoek barazki teknikari baten laguntza izango dute. Honela, argazkiak aterako dituzte eta udaletxean, Gaztainondon eta Berastegiko webgunean zintzilikatuko dituzte.

Puntuaketa erabakitzeke garaian, erdiak Udal batzordekide, lorezaintza eta barazki teknikarien esku egongo dira. Gainontzeak berriz, herritarrek emandako botoei esker eskuratuko dituzte parte-hartzaileek. Bozketak erabateko anonimoa izango da.

Baloratzeke garaian, koloreak eta landareen barietate eta konbinazioa hartuko dituzte kontuan, baita itxura eta txukuntasuna ere. Bestalde, aukera gehiago ematearren, eta urtero irabazleak ez errepikatzeke, sariak ziklikoki ematea erabaki dute Kultura batzordekoek. Hala, 2009ko sarituak parte

hartu ahal izango badu ere, aurtengo ezingo du irabazi, baina bai hurrengoan.

Kultur Asterako beste lehiaketa bat ere ari dira prestatzen Berastegin. Halaber, garai horretan, Koppa Txapelketa egingo dute.

### Kontsumo taldeei buruzko hitzaldia gaur

Kontsumo taldeak izeneko ekimena aurkeztuko dute gaur. Elikadura osasuntsua, zuzeneko salmenta eta baserriaren etorkizuna izango dira hizketagai 19:30etik aurrera, eskolako ganbaran.

Hasteko, kontsumo taldeak zer diren azalduko dute, eta ondoren, gaur egun nagusi den elikadura eta nekazaritza industrialaren inguruko gogoeta eta kritika egiten duen dokumental bat eskainiko dute. Amaitzeko, galderak egiteko eta zalantzak argitzeko tarte bat izango da.

Gaurko bilerarekin, informazioa zabaltzeaz gain, egitasmoarekin interesatuta egon daitezkeen kontsumitzaile zein ekizleak batzartuko dira.

## Alurrekoak gustura, larunbateko jaiarekin

**Ibarra** » Herritarren parte-hartzea nabarmendu dute dantza taldekoek, Dantzari Txiki eta Alurr egunaren ospakizunearan.

### ERREDAKZIOA

Alurr dantza taldeak larunbatean ospatutako Dantzari Txiki eta Alurr egunaren inguruko balorazioa egin nahi izan du, hala, izandako «giro ederra eta parte-hartze handia» azpimarratuz.

Euskal Herri osoko 300 haur inguruk hartu zuten parte Dantzari Txiki egunean. Goizean, Ikurrinari dantza ostean, eta auzo auzo ibili eta gero, 12:30ean, Ibarako plazan bildu ziren denak, eta dantza egin zuten oholtzaren gainean. Bertaratutako esanetan, «ikusgarria» izan zen. Gainera, herriko

talde batek Belauntxingo koreografia egin zuen, eta oso txalotua izan zen. Amaieran, dantzari txiki guztiak fandangoa eta arin-arina dantza zuten, eta Txiribitu aisialdi taldekoek antolatutako zirkularen jolasetan parte hartu zuten.

Arratsaldean, Alurr Eguna ospatu zuten Ibarako plazan. Guztira, 138 dantzari parte hartu zuten ikuskizunean. Oso ikuskizun «aberatsa» izan zen, dantza tradizionalak eta koreografia berriak nahastu baitzituzten. Arropa eta musika aldetik ere denetarik egon zen, tradizionala eta berria, kolore ugari. Jaiak amaitzeko, Alurr taldearekin aritzen diren musikariak dantzarako doinuak jo zituzten.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie Dantzari Txiki eta Alurr Egunean lanean aritu ziren eta parte hartu zuten guztiak: dantzariak, gurasoak, irakasleak...



## 'Egunkaria auzia' eredu, hurrengorako

**LIZARTZA** » Martxelo Otamendi Euskaldunon Egunkariako zuzendari ohia hitzaldia eskaini zuen herenegun Lizartzan. Bertan, argi eta garbi azaldu zituen «beraien errugabetasunaren arrazoiak». Honez gain, adierazi zuen, epailearen sententziak ondorengo epaiketarako ere eragina izan dezakeela. Bertaratutakoak oso gustura egoteko aukera izan zuten, eta Lizartza guztiak esker oneko hitzak hitzatu zituzten auzi honetan emandako laguntzarengatik. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitz.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitz.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Villabona.** Ekainaren 13rako Aralarra irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-emaitea, elkartean gaur, 20:00etatik 22:00etara (649 717182, [aizkardi@aizkardi.com](mailto:aizkardi@aizkardi.com)).  
■ **Tolosa.** Ekainaren 11tik 13ra Grand Gabizos-Pic de Ger (Pirinioak) mendi irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Izen-emaitea, 943 675612 eta 688 698642 ([www.oargi.org](http://www.oargi.org)).  
■ **Tolosa.** Igandean Korpus Kristi festa ospatuko da, eta Santa Maria parrokiako batzordeak eguerdiko prozesioa prestatzeko laguntza eskatzen du. Eltzeitsuak Gabirondo zapata dendan; Zatokea goxokidendan eta Ane umeen arropadendan daude. Bizilagunei balikoetan eta leihoetan oihal zuriak jartzea eskatzen diete.

### Elkarretaratzea

■ **Tolosa.** Lizardi elkarteak deituta, Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egingo dute Triangulo plazan, 19:30ean.

### Jaiak

■ **Anoeta.** Korputz Eguna; Umeen eta Mozorroen eguna: 10:30etik 13:30era ume eta gaztetxoentzako parkea plazan; 13:45ean ume eta gaztetxoek bazkaria frontoian; 16:00etan Kidam magoaren emaldia plazan; 17:15ean buruhandi eta erraldioen kalejira trikitalariekin; 18:15ean txokolate jatea plazan; 19:00etan Loatzo Musika Eskolako Bandaren kontzertua plazan; 21:00etan kostila jatea frontoian; 23:00etan eromeria plazan, Triki Hots taldearekin.

### Kirola

■ **Asteasu.** VIII. Kirol Astearren barruan, patinetan ariko dira frontoian, 17:00etan.

### Musika

■ **Tolosa.** *Kantu kontari* Ortzadar taldearen kantaldia ahozko literaturari lotua, Lina Anduezak eta Ana Telletxeak parte hartuz, udal batzar aretoan 20:00etan, Lizardi Egunaren inguruan.

### Hitzaldia

■ **Leitza.** Kultur Aroa: *Euskal mitologia; jentilak, lamiak eta orantzarroa* hitzaldia Amuntxi Aranaren eskutik, Aurrera elkarte, 20:00etatik aurrera.

### Zinema

■ **Tolosa.** *La tierra habitada* filma, jatorrizko bertsoan, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, zine-fo-rumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernika-ko Arbola, 3. 943 65 10 40.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Iparralde XXI. **09:00.** Muka-muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Lekeitio zine. **10:30.** On ein! **11:00.** Mendialdean bizi. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Ikusmira. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Lekeitio zine. **14:30.** On ein! **15:00.** Mendialdean bizi. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Ikusmira. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** EH Lau Haizetara. **19:00.** Erlo jazz. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Laskoraingo Batxilergoek eman zuten aurtengo bandera. HITZA

# Laskoraingoak garaile arraunaren festan

**Kirola** » Iragan larunbatean jokatu zen Laugarren Batel Topaketan Laskorain ikastola izan zen irabazle; festa polita sortu zen.

### ERREDAKZIOA

Laugarren urtez, Batel Topaketa egin zuten iragan larunbatean Tolosako hiru ikastetxeek, hau da, Orixe BHI, Hirukide-Eskolapioak eta Laskorain ikastolak. Ekimen honen bitartez, festa giroan, eskualdean tradizio handia izan duen kirola gazteengan sustatzea lortu nahi izaten dute.

Eguraldi ederrak lagundurik, jende ugari gerturatu zen Zerkau-siaren ingurura gazteak arraunean ikustera, giro polita sortu zelarik. Erakustaldi, ezagutza nahiz lehia-rako tartea izan zen. Batxilergo mailakoek, esaterako, bandera jokatu zuten, eta laugarrenez Laskorain ikastolak irabazi zuen. Bigarren postua Hirukidekoentzat izan zen, eta hirugarren Orixe geratu zen.

Lehia nagusi horretaz gain,



Oria ibaian, Zerkau-siaren parean festa polita izan zen. HITZA

DBH3 eta DBH4. mailakoen arteko era jokatu zuten, eta horretan ere Laskorain nagusitu zen. Bigarren Orixe geratu zen, eta hirugarren postuan Hirukide ikastetxe-koak sailkatu ziren.

### Arraunaren trebatzeko aukera

DBHko 3. eta 4. mailakoek eta Batxilergoko neska-mutulek hartu zuten parte eskola arteko lehia, baina gainerakoentzat ere izan zen arraunaren mundua ezagutu eta

probatzeko aukera. Izan ere, goiz osoan zehar Ala izeneko ikastetxerantz erabili ahal izan zuten DBHko Tolosa eta Tolosaldeko lehen mailako ikasle guztiak.

Kirol hau berriro ere indartzen hasia da eskualdean, eta gainera, emaitza bikainak ari dira lortzen hainbat txapelketatan. Iragan larunbateko ekimena ikusita, jarripena ziurtaturik dagoela esan genezake, gazte ugari gogotsu hartu baitzuten parte.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak